

IDENTIFIKATZEKO ETA SINATZEKO BITARTEKO ELEKTRONIKOAK ERABILTZEKO BALDINTZAK

© IZENPE 2022

Dokumentu hau IZENPErena da. Osotasunean soilik erreproduzi daiteke.



ALDAKETEN KONTROLA

1.0	<ul style="list-style-type: none">➤ 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamendura egokitzea.➤ Erabiltzeko baldintzak ezabatu dira. Harpidedunaren kontratua.
1.1	<ul style="list-style-type: none">➤ Dokumentuaren izena eguneratzea.➤ 2. atalean definizioen gaineko atal espezifiko bat txertatu da.➤ 3. atalean identifikazio-bitartekoen erabilerak bereizi dira: arretarako eta sinatzeko.➤ 4. atalean aldean betebeharren sailkapen berri bat txertatu da.➤ 5. atalean ziurtapen-agintaritzaren betebeharrak eguneratu dira.➤ Ziurtagiri motei eta ziurtagiri horiek jaulkitzen dituzten euskarriei buruzko atala (2. atala) ezabatu da.
1.2	<ul style="list-style-type: none">➤ Politika betetzearen gaineko argibidea gehitu da 4.3 atalean (Ziurtagiriaren Harpidedunaren Betebeharrak)
2.0	<ul style="list-style-type: none">➤ Erabiltzaileari identifikazio-bitartekoen erabilera-baldintzei buruzko informazioa emateko helburuz, dokumentu bakar batean elkartu dira PKI Dibulgatzeko Akordioaren (PDS) 1.0 bertsioa eta kautotzeko eta sinatzeko Bitarteko Elektronikoen Erabilera Baldintzen dokumentuaren 1.2 bertsioa.
2.1	<ul style="list-style-type: none">➤ Profil korporatiboaren eIDAS maila zuzendu da➤ Gailu-profila erantsi da
2.2	<ul style="list-style-type: none">➤ 4. epigrafea (<i>Ziurtagiri motak, baliozkotze prozedura eta erabilera</i>) eguneratu da: <i>Onartu gabeko herritarra</i> ziurtagiri motaren gaineko xehetasunak gehitu dira.➤ <i>Hau ezabatu da:</i> 3. epigrafea. Definizioak: Bak eta BakQ bitartekoen definizioak; bi identifikazio-bitartekoak beste kautotze-faktore biometriko batzuekin osatzeko aukera ezabatu da, hala nola hatz-marka edo aurpegia ezagutzea.
2.3	<p>Harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoa eguneratu dira.</p> <p>Profil bakoitzean eIDAS sinadura motaren zutabea erantsi da</p>



	<p>IoT gailuaren, mobileren eta NQC goitzenaren profilak gehitu dira</p> <p>Aplikazio-ziurtagirietan eta IoT gailuetan sinadura erabiltzearen deskribapena gehitu da</p> <p>Argitalpen-zerbitzuaren gaineko erreferentzia ezabatu da</p> <p>Hornitzaileen Segurtasun Politika betetzeko betebeharra erantsi da</p> <p>Erantzukizun Zibilaren Aseguruaren zenbatekoa ezabatu da</p>
2.4	Bertsio hau ez da existitzen, nomenklaturako akatsa izan zen.
2.5	<ul style="list-style-type: none">➤ BakQ-ren definizioa eguneratu da.➤ Oinarrizko CA berrien politikak gehitu dira.

BERTSIOA	DATA	ALDAKETAK
2.6	2022/01/13	12.2 epigrafea: indarrean dagoen araudia eguneratzea.
2.7	2022/09/23	Epigrafeak, <ul style="list-style-type: none">– 1, 12.1: aplikatu beharreko araudia eta Lanbide motako ziurtagiriari buruzko erreferentzia hodeian eguneratzea.– B eranskineko erreferentzia kendu da, ETSI EN 319 411 araua.– 4.1: sinadura-maila eguneratzea, . 4.1– OIDs SSL akaktualizazioa, EV eta SSI EV motako ziurtagirien erreferentziak ezabatzea.– 5.4. Baliabideen erabilera debekatuak: ezabatu egin da Izenpek emandako ziurtagiririk ezin da erabili erregistro-erakunde gisa izapideak egiteko.– 10. Informazioaren segurtasunari buruzko aipamenak sartzea– 12.2 Erreklamazio-prozedura eguneratzea eta auziak ebatzea.



AURKIBIDEA

1	SARRERA	6
2	HARREMANETARAKO DATUAK	7
3	DEFINIZIOAK	8
4	ZIURTAGIRI MOTAK, BALIOZKOTZE PROZEDURA ETA ERABILERA	10
4.1	Oinarrizko CA 2007 hierarkia (CN=Izenpe.com)	10
4.2	Oinarrizko CA 2007 kualifikatuen hierarkia (CN=ROOT CA QC IZENPE)	14
4.3	Oinarrizko CA 2007 kualifikatu gabekoen hierarkia (CN= ROOT CA NQC IZENPE)	17
5	BITARTEKO ELEKTRIKOEN ERABILERAK	18
5.3	ERABILERA EGOKIAK	18
–	KAUTOTZEKO,	18
–	SINATZEKO,	18
5.4	BITARTEKOEN ERABILERA DEBEKATUAK	19
–	KAUTOTZEA:	19
–	SINADURA:	19
6	KONFIANTZAREN MUGAK	20
7	BETEBEHARRAK	21
7.3	IZENPERENAK.	21
7.3.1	BETEBEHAR OROKORRAK	21
7.3.2	IDENTIKATZEKO BITARTEKO ELEKTRIKOAK JAULKITZEN DITUEN ENTITATE GISA.	22
7.3.3	SINATZEKO BITARTEKO ELEKTRIKOAK JAULKITZEN DITUEN ENTITATE GISA.	22
7.5	ZIURTAGIRIAREN HARPIDEDUNAREN BETEBEHARRAK	24
8	ERANTZUKIZUNAK	27



9	AKORDIOAK, ZIURTAPEN PRAKTIKEN DEKLARAZIOA ETA APLIKAGARRIAK DIREN ZIURTAGIRI POLITIKAK	30
10	DIRUA ITZULTZEARI BURUZKO POLITIKA	30
11	DATU PERTSONALAK BABESTE	30
12	LEGERIA APLIKAGARRIA ARAZOAK KONPONTZEKO MEKANISMOAK	30
12.1	Araudi aplikagarria	30
12.2	Erreklamazioak eta auzien ebazpena	31
13	AUDITORETZAK, AC-ren ZIURTAPENAK ETA KONFIANTZA ZIGILUAK ETA GORDAILUAK	31



1 SARRERA

Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-*Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe, SA-k* (aurrerantzean, Izenpe) identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak jaulkitzeko dituen baldintzak deskribatzea da dokumentu honen helburua.

Konfiantzazko zerbitzuen emaila kualifikatua da Izenpe, *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamenduan (EB) (erregelamendu hori identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa da, eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen du)* ezarritakoaren arabera (aurrerantzean eIDAS).

Hala, bitartekoak jaulkitzen ditu honakoetarako:

➤ Identifikazioa,

Ziurtagiri elektronikoetan oinarritutako identifikazio-bitartekoez gain, Izenpek bestelako identifikazio-baliabide batzuk ere jaulkitzen ditu, hala nola BaK, BaKQ, profesionala hodeian eta Izenpe Mobile. Pertsona fisiko bat identifikatzeko balio dute horiek, NANarekin/AIZrekin bat datorren erreferentzia-zenbaki baten eta pasahitz baten bidez.

Gainera BaKQ bitartekoak honakoak ditu: 16 posizioko koordinatu sorta bat edo erabiltzailearen telefono mugikorrera SMS bidez bidaltzen den erabilera bakarreko kode bat.

➤ Sinadura,

Sinatzeko, hainbat motatako ziurtagiri elektronikotan eta hainbat euskarritan oinarritutako bitartekoak jaulkitzen ditu Izenpek, dagokion *Politika espezifikoa* eta *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* zehaztutako baldintzen arabera.

Dokumentu hau honako baldintza tekniko hauen arabera sortu da: ETSI EN 319 401:Electronic signatures and infrastructures (ESI); General policy requirements for Trust Service Providers”.

Dokumentu honek inola ere ez du ordezkatzen Ziurtapen Praktiken Deklarazioa, ezta www.izenpe.eus webgunean eskuragarri dauden ziurtagirien politikak ere.



2 HARREMANETARAKO DATUAK

Zerbitzu-emailearen izena	Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe SA
Posta-helbidea	Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-1. 01008 Vitoria-Gasteiz
Posta elektronikoko helbidea	izenpe@izenpe.eus
Telefonia	900 840 123 / 945 01 62 90



3 DEFINIZIOAK

- **Identifikazio elektronikoa:** pertsona baten identifikazio-datuak formatu elektronikoa erabiltzeko prozesua da; identifikazio-datu horiek modu bakarrean ordezkatzen dute pertsona fisiko edo juridiko bat, edo pertsona juridiko baten ordezkaria den pertsona fisiko bat.
- **Identifikazio elektronikorako bitartekoak:** pertsona baten identifikazio-datuak jasotzen dituen unitate material eta/edo immateriala da, eta lineako zerbitzuetan kautotzeko erabiltzen da.
- **Kautotzea:** pertsona fisiko edo juridiko baten identifikazio elektronikoa ahalbidetzen duen prozesu elektronikoa da, edo formatu elektronikoa duten datuen jatorria eta integritatea identifikatzea ahalbidetzen duena.
- **Sinadura elektronikoa:** sinatzaileak sinatzeko erabiltzen dituen formatu elektronikoko datuak, beste datu elektronikoko batzuei erantsiak edo horiekin modu logikoan lotuak.
- **Sinadura elektronikoa aurreratua:** eIDAS Erregelamenduaren 26. artikuluan aintzat hartzen diren betekizunak betetzen dituen sinadura elektronikoa.
- **Sinadura elektronikoa kualifikatua:** sinadura elektronikoa aurreratua, sinadura elektronikoko sortzeko gailu kualifikatu bidez sortzen dena eta sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatu batean oinarritzen dena.
- **Sinadura elektronikoa ziurtagiria:** sinadura bat baliozkotzeko datuak pertsona fisiko batekin lotzen dituen deklarazio elektronikoa, eta, gutxienez, pertsona horren izena edo ezizena berresten dituena.
- **Sinadura elektronikoa ziurtagiri kualifikatua:** konfiantzazko zerbitzuen emaile kualifikatu batek jaulkitako zigilu elektronikoa ziurtagiria, eIDAS Erregelamenduaren I. eranskinean ezarritako betekizunak betetzen dituena.
- **Konfiantzazko zerbitzuen emailea:** konfiantzazko zerbitzu bat edo gehiago ematen dituen pertsona fisiko edo juridiko, konfiantzazko zerbitzuen emaile kualifikatu edo ez-kualifikatu gisa.
- **Konfiantzazko zerbitzuen emaile kualifikatua:** konfiantzazko zerbitzuen emailea, konfiantzazko zerbitzu bat edo batzuk ematen dituena eta ikuskapen-organismoaren eskutik kualifikazioa lortu duena.
- **Erregistro-entitateak:** ziurtagirien gakoaren eskatzaileak, harpidedunak eta edukitzaileak identifikatzen dituzten entitateak dira; horrez gain, ziurtagirietan jasotzen diren inguruabarrak egiaztatzen dituen dokumentazioa ziurtatzen dute, eta ziurtagiriak jaulkitzeko, ezeztatzeko eta berritzeko eskaerak baliozkotzen eta onartzen dituzte.
- **Ziurtagirien erabiltzaileak.**
 - **Ziurtagiriaren eskatzailea:** ziurtagiri oro pertsona batek eskatu behar du, haren izenean edo erakunde baten izenean.
 - **Sinatzailea:** sinadura sortzeko gailu bat duen pertsona da sinatzailea, eta bere buruaren izenean edota ordezkatzen duen pertsona fisiko edo juridikoaren izenean jarduten du.
 - **Ziurtagiriaren harpideduna:** ziurtagirian identifikatutako pertsona fisiko edo juridiko.



- **Gakoen edukitzailea:** sinadura digitaleko gakoak dituen edo horiek zainitzeaz arduratzen den pertsona fisikoa.
- Pertsona fisikoen identifikazioa eta sinadura ahalbidetzen dituen bitarteko bat da **Bak**, eta honakoek osatzen dute:
 - Erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin/pasaportearekin bat datorren erreferentzia-zenbaki bat eta pasahitz bat.
 - Biltegi zentralizatu batean jaulkitako ziurtagiri ez-kualifikatua, sinadura-egintzetarako baliagarria izango dena.
- Pertsona fisikoen identifikazioa eta sinadura ahalbidetzen dituen bitarteko bat da **BakQ**, eta honakoek osatzen dute:
 - Erreferentzia-zenbaki bat, erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin bat datorrena.
 - Pasahitz bat.
 - 16 posizioko koordinatu sorta bat edo erabiltzailearen telefono mugikorrera SMS bidez bidaltzen den erabilera bakarreko kode bat.
 - Sinadura elektronikorako ziurtagiri kualifikatu bat, Izenperen biltegi zentralizatu seguru batean jaulkia, eta sinadura egintzetarako baliagarria izango dena.



4 ZIURTAGIRI MOTAK, BALIOZKOTZE PROZEDURA ETA ERABILERA

Izenpek jaulkitako ziurtagiri mota bakoitzari dagozkion xehetasunak *Ziurtagiri bakoitzerako berariazko politika* dokumentuan arautzen dira. Dokumentu hori *Ziurtapen Praktiken Deklarazioari* atxikita dago.

Izenpek jaulkitako ziurtagiri mota bakoitzari dagozkion xehetasunak *Ziurtagiri bakoitzerako berariazko politika* dokumentuan arautzen dira. Dokumentu hori *Ziurtapen Praktiken Deklarazioari* atxikita dago.

4.1 Oinarrizko CA 2007 hierarkia (CN=izenpe.com)

HERRITARRAK						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila		Sinadura mota eIDAS
B@K	HSMa	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.5	Baxua		Oinarrizkoa
B@KQ	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.18.3	Altua(txartel birtuala rekin)	Ertaina(Giltzarekin)	Aurreratua
Herritarren Ziurtagiria	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	eIDAS profila 1.3.6.1.4.1.14777.2.18.1	Altua		Aurreratua
			eIDAS aurreko profila 1.3.6.1.4.1.14777.2.6	Altua		Kualifikatua
Izenpe Mobile	APP edukitzailea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.5.4	Ertaina		Ez aplikagarri (sinatzeko, BAKQrena erabiltzen da)
NQC goitizena	Softwarea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.7.2	Ertaina		Aurreratua

ERAKUNDEAREN ORDEZKARIA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila		Sinadura mota eIDAS
Erakundearen ordezkaria	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.14	Altua(txartel birtualarekin)	Ertaina (Giltzarekin)	Aurreratua



	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.2.12	Altua	Aurreratua
	IZENPEren softwarea-educitzailea.	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.16	Ertaina	Aurreratua

NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ERAKUNDEKO ORDEZKARIA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila		Sinadura mota eIDAS
Nortasun Juridikorik Gabeko erakundeko ordezkaria	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.15	Altua(txartel birtualar ekin)	Ertaina (Giltzarekin)	Aurreratua
	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.2.13	Altua		Aurreratua
	IZENPEren softwarea-educitzailea.	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.17	Ertaina		Aurreratua

PROFESIONALA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila		Sinadura mota eIDAS
Erakunde publikoko langileak	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.1	Altua		Aurreratua
	IZENPEren softwarea-educitzailea.	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.2	Ertaina		Aurreratua
	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.4.14.3	Altua (txartel birtualar ekin)	Ertaina (Giltzarekin)	Aurreratua
Erakunde publikoko langile goitizendunak	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	Sinadura: 1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.1	Altua		Aurreratua
		NCP+	Kautotzea: 1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.2	Altua		Ez aplikagarria



		Ez aplikagarria	Zifratua: 1.3.6.1.4.1.14777.4.13.1.3	Altua	Ez aplikagarria
Korporatibo kualifikatua	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.1	Altua	Aurreratua
	IZENPEren softwarea- edukitzailea.	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.2	Ertaina	Aurreratua
	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.19.3	Altua (txartel birtuala rekin) Ertaina (Giltza rekin)	Aurreratua
Korporatibo kualifikatu gabea	Txip kriptografikoa	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.1.1.1	Ez aplikagarri (kualifikatu gabea)	Aurreratua
Erakunde publikoetako langileak (eIDAS aurrekoak)	Txip kriptografikoa	QCP public + SSCD	1.3.6.1.4.1.14777.4.1	Ez aplikagarria	Aitortua
Eusko Jaurlaritzako langileak (eIDAS aurrekoak)	Txip kriptografikoa	QCP public + SSCD	1.3.6.1.4.1.14777.7.1	Ez aplikagarria	Aitortua
Aitortutako korporatibo publikoa (eIDAS aurrekoak)	Txip kriptografikoa	QCP public + SSCD	1.3.6.1.4.1.14777.4.2	Ez aplikagarria	Aitortua
Aitortu gabeko korporatibo publikoa (eIDAS aurrekoak)	Txip kriptografikoa	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.1.1.1	Ez aplikagarria	Aurreratua
Aitortutako korporatibo pribatua (eIDAS aurrekoak)	Txip kriptografikoa	QCP public + SSCD	1.3.6.1.4.1.14777.2.2	Ez aplikagarria	Aitortua
Aitortu gabeko korporatibo pribatua (eIDAS aurrekoak)	Txip kriptografikoa	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.2	Ez aplikagarria	Aurreratua



ERAKUNDEAREN ZIGILUA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila	Sinadura mota eIDAS
Erakundear en zigilua	Izenperen software-educitzailea.	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.2.11	Ertaina	Aurreratua
	HSMa	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.2.20	Ertaina	Aurreratua

ADMINISTRAZIO-ZIGILUA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila	Sinadura mota eIDAS
Administrazio-zigilua	IZENPEren software-educitzailea	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.4.11.2	Ertaina	Aurreratu a
	HSMa	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.4.11.3	Ertaina	Aurreratu a
Administrazio-zigilua, maila ertaina (eIDAS aurrekoa)	HSMa	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.4.4	Ez aplikagarria	Aitortua

ZERBITZARI SEGURUA (SSL/TLS)			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID POLITIKA
SSL DV	Softwarea	DVCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.2.4
SSL OV	Softwarea	OVCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.2.1
SSL Kualifikatua	Softwarea	EVCP	1.3.6.1.4.1.14777.6.1.3

APLIKAZIOA



DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID POLITIKA
Aplikazioa	Izenperen software- edukitzailea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.2.2

KODE SINADURA			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID POLITIKA
Kode sinadura	Txip kriptografikoa	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.1.3.1

IOT GAILUA			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID POLITIKA
Gailua	Softwarea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.1.3.2

4.2 Oinarrizko CA 2007 kualifikatuen hierarkia (CN=ROOT CA QC IZENPE)

HERRITARRAK						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila		Sinadura mota eIDAS
B@KQ	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.1.3	Altua(tx artel birtuala rekin)	Ertaina(Giltzarekin)	Aurreratua
Herritarren Ziurtagiria	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.8.1.1	Altua		Kualifikatua

ERAKUNDEAREN ORDEZKARIA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila	Sinadura mota eIDAS



Erakundearen ordezkaria	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.3.3	Altua (txartel birtualarekin)	Ertaina(Giltzarekin)	Aurreratua
	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.8.3.1	Altua		Kualifikatua
	IZENPEren softwarea-educitzailea.	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.3.2	Ertaina		Aurreratua

NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ERAKUNDEKO ORDEZKARIA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila		Sinadura mota eIDAS
Nortasun Juridikorik Gabeko erakundeordezkaria	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.4.3	Altua (txartel birtualarekin)	Ertaina(Giltzarekin)	Aurreratua
	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.8.4.1	Altua		Kualifikatua
	IZENPEren softwarea-educitzailea.	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.4.2	Ertaina		Aurreratua

PROFESIONALA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila		Sinadura mota eIDAS
Erakunde publikoko langileak	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.9.1.1	Altua		Kualifikatua
	IZENPEren softwarea-educitzailea.	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.9.1.2	Ertaina		Aurreratua
	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.9.1.3	Altua (txartel)	Ertaina	Aurreratua



				birtual arekin)	(Giltzarekin)	
Erakunde publikoko langile goitizendunak	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	Sinadura 1.3.6.1.4.1.14777.9.2.1	Altua		Kualifikatua
		NCP+	Kautotzea 1.3.6.1.4.1.14777.9.2.2	Altua		Ez aplikagarria
		Ez aplikagarria	Zifratua 1.3.6.1.4.1.14777.9.2.3	Altua		Ez aplikagarria
Korporatibo kualifikatua	Txip kriptografikoa	QCP-n-qscd	1.3.6.1.4.1.14777.8.2.1	Altua		Kualifikatua
	IZENPEren software-educitzailea.	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.2.2	Ertaina		Aurreratua
	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.8.2.3	Altua (txartel birtual arekin)	Ertaina (Giltzarekin)	Aurreratua

ERAKUNDEAREN ZIGILUA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila	Sinadura mota eIDAS
Erakundearen zigilua	Izenperen software-educitzailea.	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.8.5.2	Ertaina	Aurreratua
	HSMa	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.8.5.3	Ertaina	Aurreratua

ADMINISTRATIO-ZIGILUA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila	Sinadura mota eIDAS
Administratio-zigilua	IZENPEren software-educitzailea	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.9.3.2	Ertaina	Aurreratua
	HSMa	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.9.3.3	Ertaina	Aurreratua



4.3 Oinarrizko CA 2007 kualifikatu gabekoen hierarkia (CN= ROOT CA NQC IZENPE)

HERRITARRAK					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila	Sinadura mota eIDAS
B@K	HSMa	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.11.1.2	Baxua	Oinarrizkoa
Mobile	APP edukitzailea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.11.3.4	Ertaina	Ez aplikagarri (sinatzeko, BAKQrena erabiltzen da)
NQC goitizena	Softwarea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.11.2.2	Ertaina	Aurreratua

PROFESIONALA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila	Sinadura mota eIDAS
Profesionala, kualifikatu gabea	Txip kriptografikoa	NCP+	1.3.6.1.4.1.14777.11.4.2	Ez aplikagarri (kualifikatu gabea)	Aurreratua

APLIKAZIOA			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID POLITIKA
Aplikazioa	Izenperen software-edukitzailea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.12.1.2

IOT GAILUA			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID POLITIKA
Gailua	Softwarea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.12.2.2



BARNEKO ZERBITZARI SEGURUA (SSL/TLS)			
DESKRIBAPEN LABURRA	EUSKARRIA	POLITIKAREN IDENTIFIKATZAILEA	OID POLITIKA
SSL DV	Softwarea	DVCP	1.3.6.1.4.1.14777.14.1.2

5 BITARTEKO ELEKTRONIKOEN ERABILERA

5.3 ERABILERA EGOKIAK

– KAUTOTZEKO,

Bitarteko elektroniko hauek identifikatzea ahalbidetzen dute, eta onartzen dituzten Administrazio Publikoen aurrean harpidedunak edo, hala dagokionean, gakoak edukitzeak kautotzeko erabili behar dira.

Bitartekoa zerbitzu elektroniko baten aurrean identifikatzeko erabiltzen bada, Izenpek kautotzearen emaitza eskainiko dio zerbitzuaren ardura duen erakundeari.

– SINATZEKO,

▪ Pertsona fisikoak edo juridikoak ziurtagiri kualifikatuak

Sinadura- eta zigilatze-ziurtagiri kualifikatuak, dagokion ziurtagiri motan hala definitzen bada, kautotze-mezuak sinatzeko erabili daitezke, bereziki SSL edo TLS bezeroen testiguak, S/MIME posta elektroniko segurua, gako-berreskurapen gabeko zifratzeak eta beste zenbait. Sinadura digital horrek sinadura-ziurtagiriaren harpidedunaren identitatea bermatzen du.

Gainera, ziurtagiri horiek sostengua eman diezaiekete sinadura elektroniko aurreratuei. Zigilu-ziurtagiri elektronikoak dokumentuen zigilatze elektronikorako erabili behar dira.

▪ Ziurtagiri kualifikatu gabekak

Kualifikatu gabeko ziurtagiriak ez dute fedez bermatzen harpidedunaren nortasuna, eta, hala dagokionean, gako pribatua duen pertsonarena.

Sinatzeko erabiliz gero, sinadura hori ez da eskuz idatzitako sinaduraren parekoa izango.

Ziurtagiri kualifikatuak, dagokion ziurtagiri motan hala definitzen bada, kautotze-mezuak sinatzeko ere erabili daitezke, bereziki SSL edo TLS bezeroen testiguak, S/MIME posta elektroniko segurua, gako-berreskurapen gabeko zifratzeak eta beste zenbait.

▪ Aplikazio-ziurtagiriak

Aplikazio informatiko batek erabilitako ziurtagiri bat da, eta aplikazioak berak sinatutako mezuen edo fitxategien egiazkotasuna eta segurtasuna ziurtatzeko bakarrik erabiltzen da.



- IOT gailuaren ziurtagiriak

IoT (Internet of Things) gailu batek egindako online komunikazioa identifikatzea eta haren segurtasuna ziurtatzea ahalbidetzen du IoT gailuaren ziurtagiriak.

- Kode sinaduraren ziurtagiriak

Erakunde titularrei igortzen zaizkie, software horren osagai baten autentifikazioa eta osotasuna bermatzeko.

5.4 BITARTEKOEN ERABILERA DEBEKATUAK

- **KAUTOTZEA:**

berezkoa duten zereginerako eta ezarritako helbururako erabili behar dira ziurtagiriak, eta ez beste inongo zeregin eta eginkizunetarako.

- **SINADURA:** berezkoa duten zereginerako eta ezarritako helbururako erabili behar dira ziurtagiriak, eta ez beste inongo zeregin eta eginkizunetarako; eta aplikagarria den legearen arabera baino ez.

Ziurtagiriak ez dira diseinatu egoera arriskutsuetan kontrol-ekipo gisara erabiltzeko edo hutsegiteen aurkako jardueretan erabiltzeko (instalazio nuklearren funtzionamenduan, nabigazio-sistemetan, airetiko komunikazioetan, armamentuaren kontrol-sistemetan...). Jarduera horietan, akats batek heriotza, zauriak edo ingurumen-kalte larriak eragin ditzake.



6 KONFIANTZAREN MUGAK

Izenpek ez die konfiantzaren muga espezifikorik aplikatzen ziurtagiriei.

Aurreko atalean kontsulta daitezke ziurtagiri mota bakoitzaren erabilera-mugak.

Izenpek, konfiantzazko zerbitzuen emaile de heinean, honako elementuan barne-erregistroak ditu, edo modu seguruan artxibatuko dituela ziurtatzen du:

- Ziurtagiri kualifikatuen bizi-zikloarekin lotutako ekitaldi guztien ebidentziak, jaulkitzen direnetik hasi eta hurrengo 15 urteetan zehar.
- Kualifikatu gabeko ziurtagirien bizi-zikloarekin lotutako ekitaldi guztien ebidentziak, iraungitze-datatik hasi eta hurrengo 7 urteetan zehar.



7 BETEBEHARRAK

7.3 IZENPERENAK.

7.3.1 BETEBEHAR OROKORRAK

Segurtasunarekin lotutakoak:

- Erabiltzen diren sistemak eta produktuak fidagarriak izatea, aldaketa ororen aurka babestuta daudenak eta jasaten dituzten ziurtatze-prozesuen segurtasun teknikoa eta —hala badagokio— kriptografikoa bermatzen dutenak, betiere Segurtasun Politikari jarraituz.
- Bitartekoen faltsifikazioaren aurkako neurriak hartzea eta sortze-prozesuan zehar konfidentzialtasuna bermatzea, eta sinatzaileari bitartekoa prozedura seguru baten bidez ematea.
- Sistema fidagarriak erabiltzea ziurtagiri kualifikatuak biltegitzeko. Sistema horiek ziurtagiriak kautotzeko aukera eman behar dute, eta baimenik gabeko pertsonak datuak aldatu ahal izatea saihestu behar dute. Sinatzaileak aditzera eman dituen pertsonak eta kasu jakin batzuetan, soilik, sartu ahal izango dira datu horietara, eta hala bermatu behar du sistema horrek. Gainera, segurtasun-baldintzetan eragina izan dezakeen edozein aldaketa antzeman behar dute sistema horiek.
- Segurtasuna aldian behin egiaztatzea, ezarritako estandarrekiko adostasuna ziurtatzearen.
- Segurtasunaren kudeaketa egokia, Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema ezartzearekin batera, betiere ISO/IEC 27001 arauak ezarritako printzipioen arabera. Honako neurri hauek, besteak beste, hartu dira aintzat:
 - Segurtasun-gertakarien kudeaketa osoa gauzatzea, gertakari horiek hauteman, ebatzi eta optimizatu direla bermatzearen.
 - Segurtasunaren arloan interes berezia duten taldeekin harreman egokiak izatea, hala nola adituekin, segurtasun-foroekin, eta informazioaren segurtasunaren arloko elkargo profesionalekin.
 - Sistemen mantentze-lana eta bilakaera behar bezala planifikatzea, erabiltzaileen eta bezeroen iguripenak berme osoz beteko dituen zerbitzua eta etekin egokia ziurtatzearen.
- Gordetzeko zerbitzuaren hornitzaileei segurtasuneko araudia eta estandarrak bete ditzaten eskatzea (datu pertsonalak babesteari buruzko araudi orokorra, ISO, ETSI, CABForum eta Izenperen Hornitzaileen segurtasun-politika).

Pertsonalak:

- Eskaintzen diren zerbitzuak egiteko behar adinako kualifikazioa, ezagutzak eta esperientzia duten langileak erabiltzea, baita sinadura elektronikoen esparruko segurtasuneko eta kudeaketako prozedura egokiak ere.
- Segurtasuneko araudia eta estandarrak betetzea (datu pertsonalak babesteari buruzko araudi orokorra, ISO, ETSI eta Izenperen segurtasun-politika).



Prozedurarekin lotutakoak:

- Identifikatzeko eta/edo sinatzeko bitartekoa jaulki eta eman aurretik, bitartekoaren erabilerarekin lotutako baldintzen, prezioaren –ezartzen denean– eta erabilera-mugen berri emango dizu Izenpek, eta, hala dagokionean, Ziurtapen Praktiken Deklarazioak erreferentzia egiten dien tresna juridiko lotesleen berri.
- Izenpek badu jarduera eteteko amaiera-plan bat, eta, bertan zehazten da etete hori zein baldintzatan egingo litzatekeen.
- Izenpek gakoan edukitzaileari jakinarazi behar dio noiz amaitzen den haren ziurtagiriaren indarraldia, iraungi aurretik edo une horretan, eta ziurtagiria indarrrik gabe geratzearen arrazoia zehaztu behar dizkio, baita data eta ordua ere.

7.3.2 IDENTIKATZEKO BITARTEKO ELEKTRONIKOAK JAULKITZEN DITUEN ENTITATE GISA.

- Erabiltzailea identifikatuko du, eIDASen zehaztutako ziurtatze mailen arabera.
- Identifikazio-datuen osagarritasuna bermatuko du.
- Erabiltzaileak haren identifikazioa ahalbidetzen duten elementuak dituela ziurtatuko du.
- Indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baldintza teknikoak eta langileekin lotutako baldintzak beteko ditu.
- Identifikatzeko bitartekoa jaulki eta eman aurretik, bitartekoaren erabilerarekin lotutako baldintzen, prezioaren –ezartzen denean–, erabilera-mugen eta tresna juridiko lotesleen berri emango du.
- Izenpek ziurtagiriaren baliozkotasuna egiaztatze bitarteko publikoak eskaintzen ditu, Ziurtapen Praktiken Deklarazioan deskribatzen diren sistemen bidez.
- Izenpek kautotze-mekanismoak eskainiko ditu, identifikazio-mekanismoen baliozkotasuna egiaztatzeke.

7.3.3 SINATZEKO BITARTEKO ELEKTRONIKOAK JAULKITZEN DITUEN ENTITATE GISA.

- Zerbitzua ematearekin lotutako betebeharrak.

Izenpek Ziurtapen Praktiken Deklarazioaren arabera ematen ditu ziurtapen-zerbitzuak, horrek zehazten baititu bere zereginak, jarduteko prozedurak eta segurtasun-neurriak. Bereziki, dagozkion betebeharrak guztiak betetzeko arduraren gain hartzen du, erregistro-entitateak praktika horietan berariaz egiten dituenak izan ezik, baldin eta erregistro-entitate gisa jarduten ez badu.

Ziurtapen-entitatearen betebeharrak honako hauek dira:

- Zerbitzuak jaso dituen pertsonaren sinadura sortzeko datuak ez kopiatzea.



- Jaukitako ziurtagiriak adieraziko dituen eta ziurtagiri horiek indarrean dauden edo indarraldia eten edo iraungi den adieraziko duen sistema bat mantentzea.
 - Ziurtagiri kualifikatuei eta unean indarrean dauden ziurtapen-praktiketako deklarazioei buruzko informazio eta dokumentazio guztia edozein baliabide segururen bidez erregistratzea, gutxienez 15 urtez, egiten diren unetik bertatik kontaktzen hasita. Hortaz, egiten diren sinadurak eta gainerako ziurtagiriei dagozkienak 7 urtez egiaztatu ahal izango dira.
 - Sinatzaileak sinadura sortzeko datuak dituela ziurtatzea –ziurtagirian jasoarazten diren egiaztatzeari dagozkion datuak–.
 - Sinadura sortzeko eta egiaztatzeko datuen osagarritasuna bermatzea, betiere biak ziurtapen-zerbitzuen emaileak sortu baditu. Ziurtagirian agertzen den identitatea ziurtagirian agertzen den gako publikoari dagokiola, era unibokoan.
 - Zerbitzua bizkor eta modu seguruan eskaintzea. Bereziki, ziurtagirien baliozkotasuna kontsultatzeko zerbitzu bizkorra, segurua eta doakoa erabiltzeko aukera ematen du, eta ziurtagiriak modu seguruan eta berehala iraungiko badira, horren berri emango duela bermatzen du, Ziurtapen Praktiken Deklarazioak aurreikusten duenarekin bat etorriz. Zerbitzua eguneko 24 orduetan erabil daiteke, asteko 7 egunetan.
 - Sinadura elektronikoen arloan indarrean dagoen legeriak finkatzen dituen eskakizun teknikoak eta langileei buruzkoak betetzea:
 - Ziurtapen-zerbitzuak emateko beharrezko fidagarritasuna frogatzea.
 - Ziurtagiri bat jaulki edo bere indarraldia amaitu den eguna eta ordua zehaztasunez adierazi ahal izan dadin bermatzea.
- Ziurtapen-zerbitzuaren arautze juridikoarekin lotutako betebeharrak.
- Izenpek bere gain hartzen ditu ziurtagirian ageri diren betebeharrak guztiak, baita beste batzuen erreferentzia gisara hartutakoak ere. Erreferentzia bidez jasotzeko, objektu-identifikatzailea edo dokumentuari lotzeko beste bideren bat erantsi behar zaio ziurtagiriari.
 - Idatzizko hizkuntza ulergarria da Izenpe eta eskatzailea, harpideduna edo gakoan edukitzailea lotzen dituen tresna juridikoa, baita ziurtagirian konfiantza duen hirugarrena ere.
 - Ziurtapen Praktiken Deklarazioan ezarritakoa betetzeko aginduak.
 - Zein Ziurtapen Praktiken Deklarazio den aplikagarri adierazi behar du, eta, hala badagokio, zehaztu egin behar du ziurtagiriak publikoari igortzen zaizkiola eta sinadura sortzeko nahiz mezuak deszifratzeko gailu segurua erabili behar dela.
 - Gako pribatuak jaulkitzeko, ezeztatzeko eta, hala badagokio, berreskuratzeko bete beharreko klausulak.
 - Ziurtagirian dagoen informazioa zuzena dela adierazi behar du, harpidedunak kontrakoa jakinarazten ez badu behintzat.
 - Sinadura sortzeko gailu segurua hornitzeko erabilitako informazioa biltegitzeko baimena, betiere harpideduna erregistratzeko, gailu kriptografikoa hornitzeko eta



informazio hori beste batzuei uzteko, baldin eta Izenperen eragiketak baliozko ziurtagiriak ezeztatu gabe amaitzen badira.

- Ziurtagiriaren erabilera-mugak.
- Ziurtagiriak nola baliozkotu jakiteko informazioa, ziurtagiriaren egoera egiaztatzea barne dela, baita ziurtagirian dezenteko konfiantza izateko baldintzei buruzkoa ere.
- Aplikagarri diren erantzukizun-mugak, Izenpek bere gain hartzen dituen edo baztertzen dituen erantzukizunak barne.
- Ziurtagiri-eskaeren informazioa zenbat denboraz gordetzen den.
- Ikuskaritza-erregistroak zenbat denboraz gordetzen diren.
- Auziak konpontzeko aplikagarri diren prozedurak.
- Aplikagarri den legea eta eskumena duen jurisdikzioa.
- Izenpe entitate publikoren baten edo batzuen ziurtapen-politikekiko bateragarri aitortu duten, eta, hala badagokio, zein sistemaren arabera.
- Izenperen ondare-erantzukizuna bermatzeko era.

7.4 ERREGISTRO ENTITATEA

Erregistro Entitateak honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:

- Eskatzailearen, harpidedunaren eta gakoaren edukitzailearen nortasuna eta beste zenbait datu pertsonal egiaztatzea —identifikazio-bitartekoetan daudenak edo esanguratsuak direnak—, prozedura hauen arabera.
- Kudeatzen dituen ziurtagiriaren jaulkipenari, berritzeari, ezeztatzeari edo berraktibatzeari buruzko dokumentazio eta informazio guztia gordetzea.
- Ziurtagiriak ezeztatze eskaerak azkar eta modu fidagarrian jakinaraztea Izenperi, dagokion diligenziarekin.
- Izenperi artxiboak erabiltzen uztea, baita jardueretarako erabiltzen diren prozeduren eta horretarako behar den informazioaren mantentze-lanen ikuskapena egiten ere.
- Izenperi ematea ziurtagiriak jaulkitzeko, berritzeko edo ezeztatze eskaeren berri, baita hark jaulkitzen dituen bitartekoei buruzko beste zeinahi alderdiren berri ere.
- Garaiz begiratzea bitartekoen iraunaldian eragina izan dezaketen ezeztatze zergatiak.
- Identifikazio-bitartekoak jaulki, berritu eta ezeztatze Izenpek ezarritako prozedurak eta gai horren inguruan indarrean dagoen legeriak agindutakoa betetzea.
- Beharrezkoa izanez gero, gakoaren edukitzailearen esku jar ditzake sinadura sortzeko (gako pribatua) eta sinadura elektronikoa egiaztatze (gako publikoa) prozedura teknikoak.

7.5 ZIURTAGIAREN HARPIDEDUNAREN BETEBEHARRAK

- Informazio osoa eta egokia ematea Izenperi, Ziurtapen Praktiken Deklarazioko eskakizunen arabera, erregistro-prozedurari dagokionez batez ere.



- Ziurtagiriak erabiltzeko baldintzak jakitea eta onartzea, baita haiei egiten zaizkien aldaketak ere.
- Ziurtagiriren bat jaulki eta eman aurretik, horretarako onarpena ematea.
- Ziurtagirien euskarriak ongi erabili eta gordeko direla bermatzea.
- Ziurtagiria egoki erabiltzea, eta, zehazki, ziurtagirien erabilera-mugak aintzat hartzea.
- Egiatagiriak arduraz zaintzea, baimendu gabeko erabilerak saihesteko, Ziurtapen Praktiken Deklarazioan ezarritakoarekin bat.
- Izenperi eta harpidedunaren ustez konfiantza izan dezakeen edozein pertsonari honakoak jakinaraztea, atzerapenik gabe (atzeratzeko arrazoirik egon ezean):
 - Egiatagiriak galdu izana, norbaitek lapurtu izana edo arriskuan egotea.
 - Ziurtagiriaren edukian dauden okerrak edo izandako aldaketak (harpidedunak dakizkienak edo jakin litzakeenak). Aldaketak ziurtagiria ezeztatzea badakar, horretarako eskaera egin behar du harpidedunak.
- Balio-epea amaitutakoan identifikazio-bitartekoa erabiltzeari uztea.
- Gakoen edukitzaileei jakinaraztea zein betebeharrak dagozkien.
- Ziurtagiri-zerbitzuen ezartze teknikoak ez kontrolatzea, manipulatzeko edo atzeranzko ingeniartzeko ekintzarik ez egitea, aurrez Ziurtapen Entitatearen idatzizko baimenik eduki gabe.
- Ziurtagiri-zerbitzuen segurtasuna arriskuan nahita ez jartzea.
- Ziurtagirietako gako publikoei dagozkien gako pribatuak ez erabiltzea inongo ziurtagiri izenpetzeko, ziurtapen-entitatea balitz bezala.

Ziurtagiriaren harpidedunak onartu egiten ditu www.izenpe.eus/dpc orrialdean argitaratutako ZDP eta dagokion ziurtagiri-politika, zeina hemen eskura daitekeen: www.izenpe.eus.

7.6 ZIURTAGIRIEN ERABILTZAILE EGIAZTATZAILEAREN BETEBEHARRAK

Ziurtagirien erabiltzaile egiaztatzaileak honako betebeharrak dituzte:

- Eman nahi zaion erabilerarako ziurtagiria egokia den ala ez jakiteko, informazioa iturri independenteetatik jasotzea.
- Ziurtagiriak erabiltzeko baldintzak ezagutzea, Ziurtapen Praktiken Deklarazioan aurreikusitakoaren arabera.
- Emandako ziurtagirien baliozkotasuna edo ezeztapena egiaztatzea, eta, horretarako, ziurtagirien egoerari buruzko informazioa erabiltzea.
- Ziurtagirien hierarkiako ziurtagiri guztiak egiaztatzea, sinadura digitalean edo hierarkiako ziurtagiriren batean konfiantza jarri baino lehen.
- Kontuan izatea ziurtagiria erabiltzeko dauden mugak, nonahi daudelarik ere: ziurtagirian bertan nahiz egiaztatzailearen kontratuan.



- Kontuan izatea kontratuan edo beste nonbait finkatutako badaezpadako neurri guztiak, haren izaera juridikoa edozein delarik ere.
- Ziurtagiriari buruzko gertaera edo egoera irregular guztiak jakinaraztea, ziurtagiria ezeztatzeke arrazoia izan daitezkeenak.
- Ziurtagiri-zerbitzuen ezartze teknikoak ez kontrolatzea, manipulatzeko edo atzeranzko ingeniartzeko ekintzarik ez egitea, aurrez Izenperen idatzizko baimenik gabe.
- Ziurtagiri-zerbitzuen segurtasuna arriskuan nahita ez jartzea.
- Sinadura sortzeko gailu seguru batek jaulkitako ziurtagiri kualifikatuen erabiltzailea behartuta dago aitortzera —dagokion tresna juridikoan— sinadura elektronikoko horiek eskuz idatzitako sinaduren baliokideak direla, eIDAS arauaren arabera.



8 ERANTZUKIZUNAK

8.3 ZIURTAPEN AGINTARITZAREN ERANTZUKIZUNAK

Izenpe hauen erantzulea izango da:

- Konsulta-zerbitzuan ziurtagirien indarraldiari buruzko edota ziurtagirien indarraldia iraungitzeari buruzko informazioa ez sartzek edo berandu sartzek norbaiti eragindako kalteak edo galerak.
- Egiaztatze-zerbitzuan identifikazio-mekanismoaren baliozkotasunari buruzko informazioa ez sartzek edo berandu sartzek norbaiti eragindako kalteak edo galerak.
- Era berean, ziurtapen-zerbitzuak emateko beharrezko funtzioak hirugarren batzuen esku uzten dituzenean, bere gain hartuko du pertsona horien jardunaren ondorioz hirugarren pertsonen aurrean sor daitezkeen edozein erantzukizun. Ildo horretan, erantzukizun zibileko aseguruia eratu da, ziurtagirien erabilerak eragin ditzakeen kalteen eta galeren erantzukizun-arriskuari aurre egiteko.

Izenpek emandako ziurtapen-zerbitzuetan arduragabekeriaz edo behar adinako ardurarik gabe jokatzegatik erantzungo du, baita sinadura elektronikoki buruzko legerian ezartzen diren betebeharrak betetzen ez dituzenean ere. Honako kasu hauetan izan ezik:

- Ziurtagirietan jasotako informazioak eragindako kalteak, betiere, edukiak Ziurtapen Praktiken Deklarazioa betetzen badu.
- Ziurtagirien eraginkortasuna agortzek eragindako kalteak, betiere, Ziurtapen Praktiken Deklarazioan aurreikusitako argitalpen-betebeharrak betetzen baditu.
- Erabilera desegokiagatik edo identifikazio-bitartekoak ezeztatu ondoren erabiltzeagatik sortutako kalteak.
- Izenpe ez da sor daitezkeen kalte zuzen edo zeharkako, berezi, intzidentziako eta emergenteen erantzule izango, ezta eskuratu gabeko irabazien, datu-galeren eta zigorkalteen erantzule ere —aurreikusteko modukoak izan edo ez—, baldin eta horiek ziurtagirien, sinadura digitalen edo Ziurtapen Praktiken Deklarazioan eskaintzen edo aurreikusten den bestelako edozein transakzioen edo zerbitzuren erabilera, entrega, baimen, funtzionamendu edo funtzionamendu ezarekin lotuta badaude eta behar ez bezalako erabilerak eragin baditu.
- Ziurtagirian ageri diren datuen zehaztapen-ezagatik harpidedunari edo fede oneko hirugarren pertsonari eragindako kalte eta galerak, baldin eta datu horiek dokumentu publiko baten bidez (notariotzakoa, judiziala edo administratiboa) ziurtatu badira, Erregistro Entitateak eman duen dokumentu bidez denean izan ezik.

Ziurtagiriez fidatzen diren harpidedunek edo hirugarren pertsonak dituzten betebeharrak ez betetzeagatik harpidedunari edo hirugarrenei fede onez eragindako kalte-galerak.

8.4 ERREGISTRO AGINTARITZAREN ERANTZUKIZUNAK



Izenpe ez den eta erregistro-entitate gisara aritzen den erakunde oro erantzule izango da, Izenperen aurrean, bere gain hartutako eginkizunek eragiten dituzten kalteengatik, dagokion lege-tresnak finkatzen duenaren arabera.

8.5 IDENTIFIKAZIO BITARTEKOAREN JABEAREN ERANTZUKIZUNAK

- Erregistro-prozesuan zehar datuak faltsutzearen edo akats faktikoak egitearen erantzulea da.
- Baimenik ez duten pertsonetikiko komunikazio elektronikoetan identifikazio-bitartekoa erabiltzearen erantzulea da.
- Identifikazio-bitartekoari lotutako sekretua gordetzeko betebeharra ez betetzearen erantzulea da, eta identifikazio-bitartekoa ez galtzeko, ez ezagutzera emateko, ez aldatzeko edo baimenik gabe ez erabiltzeko arrazoizkoak diren neurriak hartzearen erantzulea ere bai.

8.6 HARPIDEDUNAREN ERANTZUKIZUNAK

Bere gako pribatuarekin sortutako sinadura digital baten bidez kautotutako komunikazio elektronikoko guztien erantzule izango da harpideduna, baldin eta Izenperen egiaztapen-zerbitzuek ziurtagiria baliozkoa dela egiaztatzen badute.

Ziurtagiria galdu egin dela edo lapurtu egin dutela jakinarazten ez den bitartean —Ziurtapen Praktiken Deklarazioan agintzen duen legez—, harpidedunari dagokio ziurtagiriak baimenik gabe eta/edo era desegokian erabiltzearen erantzukizuna.

Ziurtagiriak onartzearekin batera, erantzukizun hau hartzen du bere gain harpidedunak: kalte guztietatik salbu uztekoa eta, hala badagokio, kalte-ordainak ordaintzekoa Izenperi, erregistro-entitateei, eta entitate erabiltzaileei kalteak, galerak, zorrak, gastu prozesalak edo zeinahi bestelakoak eragiten dituzten ekintzengatik edo ez-egiteengatik, barne direla Izenperi, erregistro-entitateei, edo entitate erabiltzaileei ziurtagiriak erabiltzeagatik edo argitaratzeagatik dagozkien ordainsariak. Honako arrazoi hauek eragin dezakete aipatutako erantzukizuna:

- Ziurtapen-entitatearekin lotzen duen tresna juridikoaren aginduak ez betetzeak.
- Baimendu gabeko jendearekiko komunikazio elektronikoetan ziurtagiri digitalak erabiltzeak.
- Harpidedunak datuak faltsutzeak edo akats faktikoak egiteak.
- Arduragabekeriagatik edo Izenperi, Entitate Publiko Erabiltzaileari edo harpidedunaren ziurtagirian konfiantza eduki dezaketen hirugarrenei iruzur egiteko asmoz ziurtagirietan funtsezko datuak ez jartzeak.
- Gako pribatuak gordetzeko eta horiek ez galtzeko, inork ez jakiteko, ez aldatzeko edo baimenik gabe ez erabiltzeko betebeharra ez betetzeak.

Ildo horretan, Izenpe ez da izango harpidedunaren berezko betekizun hauek ez betetzeak harpidedunari edo hirugarren pertsonari fede onez eragindako kalteen erantzule:



- Izenperi edo erregistro-entitateari egiazko informazio osoa eta zehatza ematea, ziurtagirian jarri beharreko edo hura jaulki edo ezeztatzeko behar diren datuei buruz, baldin eta zerbitzu-egileak ezin izan badu datuen zehaztasun-eza antzeman.
- Ahalik eta azkarren ematea Izenperi edo erregistro-entitateari ziurtagirian dauden inguruabarren aldaketa ororen berri.
- Arretaz gordetzea sinadura sortzeko datuak, horien konfidentzialtasuna bermatzeko eta horietara inor ez sartzeko edo inork datuak ez ezagutarazteko.
- Ziurtagiria ezeza dadin eskatzea, sinadura sortzeko datuen konfidentzialtasunaz zalantzak egonez gero.
- Sinadura sortzeko datuak ez erabiltzea, ziurtagiriaren balio-epea agortu edo zerbitzu-egileak baliogabetzearen berri eman ondoren.
- Ziurtagirian jasotzen diren erabilpen-mugak aintzat hartzea, eta ziurtapen-zerbitzuen sinatzaileari jakinarazitako eta finkatutako baldintzen arabera erabiltzea.

8.7 ZIURTAGIRIETAN KONFIANTZA DUTEN HIRUGARRENEN ERANTZUKIZUNAK

Ziurtagiri baliogabeaz edo egiaztatu gabeko sinadura digitalaz fidatzen den hirugarrenak bere gain hartzen ditu horri loturiko arrisku guztiak, eta ez dauka inongo erantzukizunik eskatzerik Izenperi, erregistro-entitateei, entitate erabiltzaileei edo harpidedunei, ziurtagiri eta sinadura horiez fidatzeak eragindako gorabeherengatik.

Izenpek ez du erantzukizunik izango harpidedunari edo fede oneko hirugarrenei eragindako kalteengatik, baldin eta sinatutako dokumentuen hartzaileak ez badu betetzen honako arreta-betekizun hauetakoren bat:

- Egiaztatzea eta kontuan hartzea ziurtagirian agertzen diren murrizketak, haren balizko erabilerei dagokienez eta harekin egin daitezkeen transakzioen banakako zenbatekoari dagokienez.
- Ziurtagiriaren baliozkotasuna egiaztatzea.



9 AKORDIOAK, ZIURTAPEN PRAKTIKEN DEKLARAZIOA ETA APLIKAGARRIAK DIREN ZIURTAGIRI POLITIKAK

Akordio guztiak, ZPD eta aplikagarriak diren politikak hemen topa daitezke: www.izenpe.eus

10 DIRUA ITZULTZEARI BURUZKO POLITIKA

Izenpek ez du itzultze-politikarik, eta indarrean dagoen legerian oinarritzen da.

11 DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Izenpek honako dokumentuan aurreikusitako moduan tratatuko ditu datu pertsonalak: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA, *2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena*. Erregelamendu hori garatzeko araudia eta indarrean dauden beste arau aplikagarriak ere hartuko ditu aintzat.

Helbide honetan eskura daiteke Izenpek tratamenduei buruz duen informazioa: www.izenpe.eus/datos.

12 LEGERIA APLIKAGARRIA ARAZOAK KONPONTZEKO MEKANISMOAK

12.1 Araudi aplikagarria

Ziurtapen Praktiken Deklarazio hau gauzatzeari, egiteari, interpretatzeari eta baliozkotzeari dagozkien alor guztietan aplikatu behar da sinadura elektronikoari buruzko Espainiako legeria.

Honako hau da dokumentu honi eta ondoriozko eragiketei aplikatu dakiekeen araudia:

- 6/2020 Legea, azaroaren 11koa, konfiantzako zerbitzu elektronikoen alderdi jakin batzuk arautzen dituena.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39-2015 Legea.
- Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoari buruzko 40-2015 Legea.
- EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 ERREGELAMENDUA, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez. Erregelamendu horrek 95/46/EB Zuzentaraua indargabetzen du.
- Identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko 910/2014 Europako Erregelamendua (eIDAS).



12.2 Erreklamazioak eta auzien ebazpena

Izenpek kontsumoko artekaritza-sistemaren kontrolpean dihardu, aplikagarri zaion legeriak aurreikusten duenaren arabera. Hala, eskatzaileen edo harpidedunen kexuak edo erreklamazioak artatu eta ebaztiko ditu, eta hartzen duen erabakia loteslea eta betearazlea izango da alde bientzat, herritarren ziurtagiriei dagokienez betiere.

Xede horretarako, eskatzaileak edo harpidedunak sistema hori onartzen duela joko da dagokion Kontsumoko Artekaritza Batzordean artekaritza-eskaera formalizatzen duen une beretik.

Kontsumoko artekaritza-sistematik at dauden herritarraren ziurtagirien esparruan eskatzaileengandik edo harpidedunengandik sor daitekeen beste edozein auzi dagokion jurisdikzioaren esku geratuko da.

13 AUDITORETZAK, AC-ren ZIURTAPENAK ETA KONFIANTZA ZIGILUAK ETA GORDAILUAK

Zerbitzuak eraginkortasunez garatzeko eta ezartzeko helburuarekin, Izenpek informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema ezarri du konfiantza-zerbitzuekin lotzen diren prozesuetarako, betiere ISO 27001 estandarren arabera.

Izenpek, gainera, ETSIren (Telekomunikazioetako Estandarren Europako Institutua) estandarren jarraibideak jarraitzen ditu eta arau hauen araberako zehaztapen teknikoen ziurtapenak lortu ditu: ziurtagiri kualifikatuak jaulkitzeko EN 319 411-2 araua, gako publikoko ziurtagiriak jaulkitzeko EN 319 411-1 araua eta denbora-zigiluak jaulkitzeko EN ETSI EN 319 422 araua. Identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko 910/2014 Europako Erregelamenduak (eIDAS) eskatzen ditu arau horiek.

Baliozkotze hedatuko ziurtagirien politika jarraitzen duten zerbitzari seguruen ziurtagirietarako (EVCP), erakundearen baliozkotze-politika jarraitzen duten zerbitzari seguruen ziurtagirietarako (OVCP) eta domeinuaren baliozkotze-politika jarraitzen duten zerbitzari seguruen ziurtagirietarako (DVCP), gainera, CA/Browser Forumek onartutako jarraibideak jarraitzen dira; hemen eskura daitezke: www.cabforum.org.

Hemen kontsulta daitezke ziurtapen guztiak: www.izenpe.eus.